

EROSKI-K BOSKOIZTU EGIN DITU HIRU URTEAN EUSKAL SAGARDOA JATORRI IZENENKO SAGARDOAREN SALMENTAK

- EROSKI k Euskal Autonomia Erkidegoko hogeit hamar bat ekoizlerekin dihardu , eta 2019an 92.000 litro pasa saldu zuen Euskal Sagardoa jatorri izena duen sagardotik
- Kanpaina berriari ekiteko, EROSKI k Euskal Sagardoa jatorri izenaren txotxa egingo du bihar Asier Odriozola EITBko aurkezlearekin Usurbilgo hipermerkatuan, eta musika ekitaldiak izango dira txalapartarekin lagunduta
- Bigarren aldiz jarraian, kontsumitzaileek Euskal Sagardoa jatorri izena duen Seletgia sagardoa hautatzeko prozesuan parte hartu ahalko dute; EROSKIren saltokietan egongo da ekainean

Usurbil (Gipuzkoa), 2020ko urtarrilaren 24a.- [EROSKI](#) k boskoiztu egin ditu hiru urtez Euskal Sagardoa jatorri izenaren salmentak EAEn. Iaz, 92.000 litro saldu genituen Euskal Sagardotik EROSKI n, eta lankidetzan jardun genuen Euskadiko hogeit hamar hornitzaile ingururekin; era horretan, sendotu egin genuen tokiko ekoizleei ematen diegun laguntza eta euskal ekoizpen ehunaren alde egiten dugun apustua.

2019an, 762.000 litro sagardo saldu genituen EROSKI n guztira; horrek esan nahi du milioi bat botila baino gehiago saldu zirela. Kooperatibak bihar inauguratuko du sagardo garaia, Usurbilgo Urbil hipermerkatuan, Astigarragarekin eta Hernanirekin batera Gipuzkoako sagardoaren hiriburua den herrian, alegia. "*Sendo dihardugu euskal ekoizpen ehunaren aldeko apustuan; izan ere, gure ustez, horrek iraungo badu eta gure inguruko enplegua, ekonomia, kultura eta paisaia indartuko badira, ezinbestekoa da haren alde egitea*", esan du EROSKI nren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

Txotxarena EITBko aurkezle Asier Odriozolak gidatuko du, eta musikarekin girotua egongo da, txalapartaren erritmora. 12:00etan izango da ekitaldia, eta bertan izango dira Unai Agirre Euskal Sagardoa jatorri izenaren koordinatzailea, Asun Bastida EROSKI nren Tokiko Produktuen zuzendari komertziala, Javier Aramendi EROSKI Urbil hipermerkatuko gerentea eta EAEn ospe handia duten sagardotegietako ordezkariak. Ekitaldian omenaldia egingo diote Bereziartua sagardotegiari, haren 150. urteurrena dela eta.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Seleq̃tia sagardoa hautatzeko prozesu parte hartzailea

Iaz, lehenengoz jarri zuen martxan EROSKIk ekimen bat Euskal Sagardoaren jatorri izena duen Seleq̃tia sagardoa kontsumitzaileekin hautatzeko. Aurten berriz jarriko zaie sagardoa dastatzeko, haiek hauta dezaten 2020an botilatu eta marka propioarekin salduko den sagardoa.

Era horretan, EROSKIk sagardoaren tradizio zahar bat berreskuratuko du. "*Orain txotxa bihurtu da gastronomiari eta festari lotutako kulturaren adierazle eta ikur, baina horren jatorria garai bateko 'probaketak' ziren; hau da, sagardoa erosi nahi zutenek dastatu egiten zuten bat eta bestea, gehien gustatu zitzaiena aukeratu eta botilan huraxe sartzeko eskatzen zieten sagardogileei*", oroitarazi du Asun Bastidak.

Bi protagonista nagusi izaten ditu prozesuak: parte hartu duten sagardotegiak eta kontsumitzaileak. Azken horien esku uzten da erabakia, eta haiek esaten dute zein sagardo merkaturatu. Beste eragile batzuek ere parte hartuko dute, adibidez kalitate ziurtagiriak ematen dituzten enpresek edo BCC-k berak, zeinek ezagutza zientifikoa eta teknologia modernoak eskaintzen dituzten produkturik onena lortzeko.

Kanpaina abiatzearekin, urtero abiatuko da ekimen hori dastatze saioak sortuta, eta horiek hartuko dute azken erabakia martxoko hilean. Euskal Sagardoaren Kontseilu Arautzaileak zehaztuko du zein sagardorekin egingo diren dastatze saioak, eta beharrezko trebakuntza ere emango du; sagardo bakoitza dastatzeko eta baloratzeko prozedura ere haiek gidatuko dute. Ekainerako, EROSKIren saltoki guztietan egongo da Seleq̃tia saileko Euskal Sagardo berria.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)